

Kidegoaren Kodea: 590	Espezialitatea: Filosofia	Hizkuntza: Euskara	Froga egitearen data: 2021-06-20
----------------------------------	--------------------------------------	-------------------------------	---

1A PROBA: ARIKETA PRAKTIKOAK

1. ARIKETA: TESTU FILOSOFIKOA IRUZKINTZEA

“Izan ere, filosofiaren balioa haren ziurtasunik ezean berean bilatu behar da nabarmenki. Azaletik bada ere, filosofiarik ezagutzen ez duen pertsona bizitzan barna sen onetik eratorritako aurreiritzietan harrapatuta mugitzen da, bai bere adinarekin eta nazioarekin lotuta dauden ohiko usteetatik eratorritakoetan, baita arrazoimen metodikoarekin elkarlanean ibili gabe edo haren baimenik gabe gogamenean hazitako iritzietatik eratorritakoetan ere. Horrelako pertsona batentzat munduak zehatza, mugatua eta nabaria izateko joera du; objektu arruntek ez dute arazorik sortzen, eta ahalbide arrotzak mespretxuz uzten dira bazterrean. Aitzitik, filosofia ikasten hasi bezain laster ikusten dugu objekturik egunerokoenek ere arazoak sortzen dituztela, hasierako kapituluetan esan bezala, eta, halaber, arazo horiei erantzun osagabea baino ezin zaiela eman. Gure pentsamenduak areagotzen dituzten eta, halaber, beroriek ohituraren tiraniatik askatzen dituzten ahalbide asko iradokitzeke gai da filosofia, nahiz eta filosofiak berak sortzen dituen zalantzei eman behar zaien egiatzko erantzuna zein den ziurtasunez esateko gai ez den. Hortaz, filosofiak gauzak zer diren esateko unean ziurtasun sentimendua gutxiagotzen badu ere, gauzak zer izan daitezkeen esateko unean nabarmen areagotzen du gure ezagutza; filosofiak zalantza askatzailearen erresumara sekula sartu ez direnen dogmatismo harro samarra deusezten du, eta bizirik eusten dio daukagun harritzeko senari, ohiko gauzak ezohiko modu batean aurkezten dizkigulako.”

Russell, Bertrand: *Filosofiaren arazoak*, Klasikoak, Bilbo: 2002.

EGIZU TESTU FILOSOFIKOAREN IRUZKINA ONDOKO ATALAK KONTUAN HARTUZ:

1. ANALISIA:

- Testuaren tesia identifikatu eta justifikatu.
- Egizu testuan jasotako ideien eskema.
- Definitu kontzeptu nagusiak.

2. HAUSNARKETA FILOSOFIKOA:

- Kokatu testuinguruan.
- Erlazionatu egilearen filosofiarekin eta filosofiaren historiarekin.
- Azaldu gaiaren gaurkotasuna.
- Egin gogoeta kritiko eta pertsonala.
- eta abar.

3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA:

- Egin gai hau gelan lantzeko proposamen didaktiko bat.

*BALORATUKO DA: Oinarri teorikoa, hizkera tekniko aberats eta zehatza, argudioen kalitatea, koherentzia eta abar.

2. ARIKETA: GAI ETIKO ETA FILOSOFIKOAK IRUZKINDU ETA AZTERTZEA (DILEMA MORALA)

“Tranbia bat kontrolik gabe doa abiadura bizian, eta, ezer egin ezean, aurrean dituen bost pertsona hilko ditu. Aukera bakarra dago tranbia gelditzeko: alboan dagoen seigarren laguna trenbidera bultzatzea; bere gorputzarekin tranbia geldiaraziko du zorigaitzeko lagun horrek. Bizitza bat bosten truke, beraz. Zorionez, psikologoek prestatutako esperimendu bat baino ez da, tranbiaren dilema izenekoa. Logika matematikoak bost bizitzak salbatzea aginduko luke, baina inkesta gehienetan hiru lagunetik batek baino ez du aukera hori hautatzen. Gehientzat pertsona bat hiltzea ez da zilegi, heriotza horrek bizitza asko salbatuko baditu ere; askoren iritziz, hori da gizakia gizaki egiten duena.

Adimen artifizialaren garapenak, ordea, erabaki zail horiei erantzuteko premia azaleratu du. Izan ere, makinek ez dute moralik: gizakiek irakatsi beharko diete halako egoeretan zer egin. Azken urteotan probatzen ari diren ibilgailu autonomoek logika erabiltzen dute istripuek sortutako egoerei aurre egiteko, baina programatzaileek zehaztutako arauen arabera erabakitzen dute. Aste honetan Science aldizkarian plazaratutako ikerketa batek eztabaida horretan sakondu du.

(...) «Askotan gizakiei eskatzen ez dieguna makinei eskatzen diegu», nabarmendu du NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoko Automatika eta Konputazioko katedradun Humberto Bustincek. «Gizaki batek istripu bat izaten duenean, askotan hutsegite batez hitz egiten da, baina makina bat tartean bada, akats hori ez dugu onartzen».

Arlo etikoan sakondu beharra azpimarratu du. Science-ko azterlanak bide laburra egin duela uste baitu. «Seguruenera ikerketa horretarako erabilitako antzeko inkesta asko egingo dira, eta horiekin datu baseak osatuko dira. Horrela, autoak segundo milarenetan erabaki txarren artean onena aukeratuko du».”(...)

Gallego, J. (2016/06/26). “Makinek erabakia hartu behar dutenean”. *Berria*.

1. IDENTIFIKATU ondorengo testuan planteatzen d(ir)en dilema etikoa(k).
 2. AZTERTU dilema: gertakariak eta inguruabarrak, balioak...
 3. EBATZI: irtenbide posibleak aztertu eta, ahal delarik, konpondu.
 4. Egin PROPOSAMEN DIDAKTIKOA dilema ikasgelan lantzeko.
- * BALORATUKO DA: Oinarri teorikoa, hizkera tekniko aberats eta zehatza, argudioen egokitasun eta sendotasuna, kontrargudioak eta abar.

3. ARIKETA: GAI LOGIKO ETA/EDO EPISTEMOLOGIKOAK IRUZKINDU ETA AZTERTZEA

“Jainkoa ez bada existitzen eta edozer gauza egitea baimenduta badago , orduan, ezinbertzean, kaosera goaz. Baina ez goaz kaosera. Bertze aldetik, Jainkoa ez da existitzen. Ondorioz, edozer gauza egitea ez dago baimenduta”.

Fiódor DOSTOIEVSKI, *Karamazov anaiak*.

1. EBATZI: Aurreko testua hizkuntza formalean jarri eta gero, ebatzi bertako egudiaketa bi metodoen bitartez: egia taulak eta inferentzia arauak.

2. JUSTIFIKATU: Arrazoitu eta azaldu hizkuntza formalerako jauzia eta ebazpenean emandako urrats guztiak.

3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: Egin ezazu proposamen didaktikoa kasua ikasgelan lantzeko.

* BALORATUKO DIRA: Ebazpen argia eta zehatza egitea, funts teorikoa ematea, egindakoa justifikatzea, hizkera tekniko aberats eta zehatza erabiltzea eta abar.